

9 hilabete pasatu dira otsailak 6 tragiko hartatik.  
9 hilabete Zaldibarko Verter Recycling zabortegia amildu zenetik.  
9 hilabete, bi langile lanera irten eta etxera itzuli ez zirenetik.  
9 hilabete, Eitzaga eta Eitzagarrak modu krudelean zigortzen dabiltzanetik.  
9 hilabete, administrazioaren aldetik isiltasuna erabatekoa bilakatu zenetik.  
9 hilabete, erantzukizunak bere gain inork hartu ez dituenetik.

9 hilabete oso luze bizi izan ditugu, 39 aste gogor, 274 egun amaiezin.

Otsailak 6 tragiko hartatik hainbat izan dira “langileak-osasuna-erantzukizunak” lemapean burutu ditugun mobilizazioak: lehen egunetako manifestazio jendetsuak, otsailaren 15eko manifestazio bateratua, ekintza kulturalak, elkarretaratzeak, paro herrikoia... Ondoren ezarri ziguten bigarren konfinamendua. Covid19a, batzuek isilik egoteko eta gaia ahanzturan uzten saiatzeko aprobetxatu nahi izan badute ere, guk ez. Guk, aldarrikapenak kalera ateratzen jarraitu dugu. Joaquin eta Alberto gogoan izan ditugu. Burrunbadak antolatu ditugu, lapiko jotzeak, lore eskaintzak, elkartasun argazkiak... gure leiho eta balkoiak elkartasunez bete ditugu. Kale ekintzak baimendu orduko, herritarrok plazak hartu ditugu. Kaleak hartu ditugu. Zallan mobilizatu gara, Joaquin behingoz zabortegitik ateratzea exijitzeko. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartarekin batera Durangoko auzitegiak zabalik duen epaiketara aurkeztu gara, erantzukizunak argitzeko bidean gure esku ditugun tresna guztiak erabili nahi ditugulako. Egia jakin nahi eta behar dugulako.

Otsailaren 15ean milaka lagun elkartu ginen Eitzagan. Han abestutako bertsoak zioen: “informazioa gordez, eman barik aurpegia” eta “guztion bizitzak dira eta zor zaigu egia”. Ez genuen berehalakoan pentsatuko 9 hilabeteren ostean berdin jarraituko genuenik. Eusko Jaurlaritzaren aldetik herritarrok jaso dugun informazioa murrizta izan da eta komenigarri iritzi diotenean soilik eman dute. Hasieran, funtziotan zegoen gobernua zelako. Gero, gobernua osatu ez zelako. Gobernua osatu ondoren, beste lehentasun batzuk daudelako. Noiz hasiko dira benetan Zaldibarko zabortegiaren gaiak eskatzen duen erantzun, garrantzi eta maila politikoa ematen? Noiz hasiko da Eusko Jaurlaritza Zaldibarko gaia seriozki ikertzen? Zabortegiaren inguruko garapenaren eta lanen alde positibo zein negatiboak azaltzen? Autokritika egiten? Hain zaila al da? Noizko egia? Noizko justizia? Nola da posible ingurumen sailburu ohi Iñaki Arriolak postu publiko baten jarraitzea? Nola da posible sailburu izatea?

9 hilabete igaro dira Alberto eta Joaquin lanera joan eta etxera itzuli ez zirenetik. 9 hilabete bete ezinezko hutsune bat sortu zenetik. Abuztuan iritsi zen lehen argi izpia auzi ilun honetara, Albertoren gorpuzkiak aurkitu zituztenean. Lanean jarraitu behar da, Joaquin lehenbailehen handik atera eta senide eta lagunek merezi eta behar duten agurra eman ahal izateko. Ahalegin horretan buru-belarri jarraitzea eta beharrezko baliabideak eskaintzea eskatzen dugu. Gure besarkadarik beroena bi langileen senide, lagun eta gertukoenei.

Zaldibarren gertatutakoa ez errepikatzeko bermeak eskatzen ditugu. Herritarrok, ikusi eta ikasi dugu hondakinen kudeaketa ezin dela enpresa pribatuen esku utzi. Ezin direla gutxi batzuen etekin ekonomikoak herritarren bizi eta osasunaren aurretik jarri. Hondakinen kudeaketa eredia birplanteatzeko momentua iritsi dela argi daukagu, baina ez dugu norabide honetan Eusko Jaurlaritzaren aldetik inolako urrats argirik ikusi. Noizko beharrezkoa den trantsizio energetiko, ekologiko eta sozialerako bide-orri argi eta zehatz bat?

Bederatzi hilabete. Hamaika aldarrikapen. Milaka lagun. Elkartasuna.

Langileak oroitzeko, Joaquin topatu arte, gure osasunaren eta bizitzaren defentsan eta erantzukizun guztiak argitu arte, lanean jarraituko dugu!  
Zaldibar Argitu